

KANALAK

HUBBROS enpresak produktuak saldu nahi ditu, eta horretarako eta baita jendearen bizitza errazteko hainbat bide izango ditugu. Hiru kanal desberdin izango ditu produktuak erosleen eskuetara heltzeko.

Lehenengo kanala gure denda fisikoak izango dira. Pentsatu egin dugu gure lehen denda fisikoa Bilbon zabaltzea, gure hiria delako eta etxetik hurbil bizi garelako. Honetaz aparte Euskal Herrian denetariko kirola egin ahal denez produktu mota guztiak sal ditzakegu. Denda honetan produktu guztiak jarriko ditugu salgai, beste denda batzuek egiten dutenaren alderantziz (produktuen alde bat dendetan salgai izatea eta beste aldea webgunean izatea).

Bigarren kanala, maratoniak edo triatlonak dauden lekuetara joango gara hor gure produktuak partzailek ikus dezaten. Kirol hauetan modalitate desberdinak daude eta haietara moldatzeko gure produktua erabil dezakete, eta horrela haien artean ospetuagoa bihurtuko dira.

Azkenik, hirugarren kanala, interneten bidez izango da, gure webgunean. Webgune honetan produktu guztiak izango ditugu. Amaitzeko, internetaren mundua gero eta gehiago hazten dagoenez, iragarki ikusgarriak sortzen saiatuko gara, horrela gizarte gaztera heltzea ahalbidetuko duena. Ez ditugu gure iragarkiak ohiko moduan jarriko, gazteek ez dituztelako telebista edo irratia erabiltzen; izan ere, sare sozialak erabiliko ditugu.

